



Udal agiria ATAUN

BASERRIARI BEGIRA **SAN ISIDRO EGUNA 2019 – SAN GREGORION**

Maiatzak 15, asteazkena

11:00etan azoka irekiera.

- Bertan herriko gazta dastatze eta barazki, ziza, landare... erakusketa izango da. Nahi duen orori postua jartzeko eskatzen zaio.

14:00etan bazkaria Pelotazale elkartean.

(Menua: Haragi zopa, pikatxa, arkumea, postrea eta kafea lagungarriekin. Bazkarirako izena eman behar da Udaletxean maiatzak 10 eguerdia baino lehen. 943 180011. Salneurria 25€)

Santi eta Katxo trikitilariak ere bertan izango dira.

HERRITARREN ERAKUSKETA

Herritarrak animatu nahi ditugu beraien urteko produktuak erakustera.

- Produktuak norberarenak eta herriko lurretan haziak izatea nahiko genuke.

-Barazki postua jartzen dutenek izango dute diru-laguntza eta bazkarirako txartela. Gazta, ziza eta gainontzeko postua jartzen dutenei ere bazkari-txartela emango zaie.

-Gazta aurkeztuko dutenek Miel Mari mendi zinegotziarekin jarri beharko dira harremanetan 669623477 telefonoan.

-Postua jarri nahi duenak izena eman beharko du udaletxean maiatzaren 10 eguerdia baino lehen.

BASERRIA ATAUNEN LEHEN ETA ORAIN ERAKUSKETA

Maiatzaren 15ean, Joan Arin Dorronsorearen lanetan oinarritutako argazki erakusketa izango da San Gregorioko Zelai frontoian. Erakusketa hau Haitzarri, Murkondo eta Atauniker kultur elkarteek Arin familiarekin batera antolatutakoa da.

Ataunen, 2019ko maiatzaren 6an

